



horrekin konturatu beharko ginateke berandu baino lehen.

Baina gauzak egiteko beste modu horiek ez dute berehalako emaitzarik ematen, eta egunotako sisteman zaila da hori ulertzea.

Bai, hala da. Esaterako, produktu kimikoak saltzen dituzten industriek badakite produktu horiek erabat kaltegarriak direla osasunerako, baina bost axola zaie. Beren interes bakarra sekulako dirutza irabazten jarraitzea da, kosta ala kosta.

Eta pentsatzeko modu horretan inor ez da akordatzen hurrengo belaunaldiekin. Zernolako Lurra utzi behar diegu?

Eta datozen belaunaldietan pentsatzen hasi beharra dago. Eta batez ere haurrak eta gazteak beste modu batera hezi behar ditugu, egunerokoan ohitura txikiak hartzen joan daitezten eta Lurra zain dezaten. Guk ere badugu zer desikasi eta zer ikasi berriro ere.

Filmean airetik hartutako irudiak agertzen dira eta horietan garbi ikusten da gizakiak egin duen sarraskia. Argazkia desatsegina da, baina hori baino gehiago da, ezta?

Zalantzarik gabe. Lurraren biziraupena dago jokoan, eta, noski, gure biziraupena. Hala ere, dena ez dago galduta, mirariak ere gertatzen direlako. Filmarekin egiten ari naizen bidea oso interesgarria eta polita izaten ari da niretzako eta istorio izugarriak ari naiz ezagutzen. Munduko txoko guztietatik idazten didate filmaren inguruan eta bada sekulako gauzak egiten dituen jendea, itxaropena pizten duena. Kolonbian gizon batek urte eta erdiko bidea egin du bizikletaz, 25.000 kilometro, "Home" filma Latinoamerikako herri txiki askotara eramateko. Hartara, Internetik ez duten herrietara eraman du pelikula. Eta hori guztia borondatez egin du. Beste batzuek, borondatez ere, pelikula tibeterrara itzuli dute eta Interneten jarri dute. Orain, gobernuz kan-

«Helburua da jendeak gertatzen ari denaren kontzientzia har dezan eta uler dezan oraindik gure Lurra salbatzeko garaiz gabiltzala, beranduegi dela ezkorrak izateko»

poko erakunde desberdinekin lan egiten duen talde batek baimena eskatu digu pelikula Afrikako dialekto desberdinetara itzuli ahal izateko. Filmaren mezua oso garrantzitsua da, eta, ahalik eta gehien zabaldu, hobe. Horrez gain, oso pedagogikoa den dokumentu bat prestatu dugu, hizkuntza desberdinetan eskura daitekeena, eta eskoletarako oso baliagarria iruditzen zaiguna.

Oso garrantzitsua da herritarren kontzientziak eta ohiturak astintzea, baina sistemaren erroetara joan beharko da, ezta?

Zalantzarik gabe sistema politikoa eta ekonomikoa aldatu behar dira, hankaz gora jarri behar dira. Baina iruditzen zait pixkanaka gauza batzuk ari direla mugitzen, herria ozen esa-

ten ari da aldaketa nahi duela, ez dagoela ados egun nagusien sistemarekin. Eta denon artean, denok elkartuz, zerbait lortuko dugu seguru.

Espero ez zenuten bidea egiten ari al da filma?

Egia esan, bai. Yannek hiru urte eskaini zizkion proiektuari, bai grabaketan eta bai muntaketan. Eta hori guztia dirurik kobratu gabe egin zuen, zabaltzen duen mezua oso garrantzitsua iruditzen zaiolako. Baina filma estreinatu eta ia hiru urte pasa direnean egileak oso harrিতa daude oraindik bizirik dagoelako, oraindik munduan barna dabilelako. Ez zuten espero halakorik. Dagoeneko munduan 600 milioi lagunek ikusi dutela kalkulatu dugu. Pozik gaudere beraz. Orain beste pelikula bat egiten ari da.

«Home» filmaren jarraipena izango da lan berri hori?

Bai, halaxe da. Izan ere "Home" filmak ez ditu gai guztiak jorratzen eta pelikula ikusten duzunean konturatzen zara gauza asko aldatu egin direla dagoeneko. Tsunamia, Fukushimako arazoak... horiei buruz ez du hitz egiten pelikulan eta eguneratzen ari da horregatik.

Pentsatzekoa da mundua krisi ekonomikoari begira dagoen honetan ingurumen mailako arazoak bigarren toki batera pasako direla, ezta?

Tamalez horrela izaten da, eta agian krisiaren konponbidea ingurumenean dago. Baina noski, kontu hori ez da oso ekonomikoa, gehiago da sen oneko kontu bat. Eta zoritxarrez horren eskasia dago munduan agintzen dutenengan.

